

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

40

1/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 2koa, Lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egiten duena.

Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 7.c) eta 50. artikuluek Lehendakariaren esku uzten duten ahalmenari eutsiz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 2an egindako bilkuran aztertu ostean, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egitea ebatzi dut.

Xedapen horietan ezarritakoa aintzat hartuz, eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskondeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 46. artikuluan -ekainaren 19ko 15/1998 Legeaz emandako idazkeran- eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egitea.

1.– Desegin egiten da 2005eko apirilaren 17an aukeratutako Eusko Legebiltzarra.

2.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak 2009ko martxoaren 1ean egingo dira, igandea.

2. artikulua.– Aukeratu beharreko legebiltzarkidekopurua.

Hauteskunde barruti bakoitzeko 25 legebiltzarkide hautatuko dira, horixe baita Euskal Autonomia Estatutuaren 26. artikuluan eta ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 10. artikuluan ezarritakoa.

3. artikulua.– Hauteskunde kanpaina.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 68.2 artikuluan xedatutako moduan, hamabost egun iraungo du hauteskunde kanpainak. Otsailaren 13ko 00:00 orduan hasiko da eta otsailaren 27ko 24:00 orduak arte iraungo du kanpainak.

AZKEN XEDAPENA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 46.3 artikuluan xedatuta dagoenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 2an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

40

DECRETO 1/2009, de 2 de enero, del Lehendakari, por el que se disuelve el Parlamento Vasco y se convocan elecciones.

En ejercicio de la facultad que atribuyen al Lehendakari los artículos 7.c) y 50 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, efectuada la preceptiva deliberación del Consejo de Gobierno en reunión celebrada el día 2 de enero de 2009, he resuelto disolver el Parlamento Vasco y convocar elecciones.

En consecuencia, en virtud de los preceptos citados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, en la redacción dada por la Ley 15/1998, de 19 de junio, y demás legislación aplicable,

DISPONGO:

Artículo 1.– Disolución del Parlamento Vasco y convocatoria de elecciones.

1.– Queda disuelto el Parlamento Vasco elegido el día 17 de abril de 2005.

2.– Se convocan elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el domingo día 1 de marzo de 2009.

Artículo 2.– Número de parlamentarios o parlamentarias a elegir.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 26 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y 10 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, se elegirán 25 parlamentarios o parlamentarias por cada circunscripción electoral.

Artículo 3.– Campaña electoral.

De conformidad con el artículo 68.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, la campaña electoral durará quince días. Comenzará a las cero horas del día 13 de febrero y concluirá a las veinticuatro horas del día 27 de febrero.

DISPOSICIÓN FINAL

Con arreglo a lo dispuesto en el artículo 46.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, el presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de enero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.